

## 2022ko abenduaren 16ko Mahai Sektoriala

### 1. Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak (LHIT) Bigarren Hezkuntzako kidegoan integratzea.

- **Lanbide Heziketako irakasle tekniko funtzionarioek**, baldin titulurik badute (gradua, diplomatura edo parekoa), nahiz eta eszedentzian edo zerbitzu berezietan egon. Urtarrilaren bukaera aldera argitaratuko da deialdia.
- **Integrazio data**: 2021eko urtarrilaren 19tik aurrera edo funtzionario izendatzen denetik edo titulazioa lortzen denetik.
- **Ondoren**: baldintzak betetzen ez dituztenek edo deialdia ateratzean eskatzen ez dutenek 2026ko urtarrilaren 19rarte izango dute epea. Gerora ezin izango da.
- **Espezialitate bat baino gehiago duenak**: denetan izango da BHko irakaslea.
- **Unibertsitateko titulaziorik ez duenak**: iraungiko den kidegoan jarraituko du (LHIT).
- **Egonkortze prozesuko merezimendu eta oposizio lehiaketa**: unibertsitate titulaziorik ez badute, ezin dira aurkeztu Bigarren Hezkuntzan sartuko diren espezialitateetara, baina bai Lanbide Heziketako Sektore Berezietan dauden hamar espezialitateetara, baldintzak betez gero: *sukaldaritza eta gozogintza, estetika, ile apainketa, patroigintza eta jantzigintza, arotzeriako eta altzarigintzako fabrikazioa eta instalazioa, ibilgailuen mantentze-lanak, makinaren mekanizazioa eta mantentze-lanak, soldadura, arte grafikoen ekoizpena eta jatetxe arloko zerbitzuak.*
- **Oposiziorik ez dagoen bitartean, zerrendak dauden bezala mantenduko dira**. Unibertsitateko titulurik ez duten pertsonak kontratatzen jarraitu ahal izango da Bigarren Hezkuntzara igarotzen diren espezialitateetan, 2026ko urtarrilaren 19ra arte. STEILASek eskatu du epemuga hori zabaltzea eta irtenbide bat bilatzea.
- STEILASek eskatu du unibertsitate titulazioa duten **behin-behineko irakasleei** ere **atzeraeraginezko ondorioekin ordaintzea** eskatu du, 2021eko urtarrilaren 19tik. Erreklamatu nahi duenak, jarri harremanetan gurekin.

### 2. Behin-behineko destinoen, praktikaldien eta zerbitzu-eginkizunen esleipena.

- **Eskola-karga faltagatik lekuz aldatutako irakasleak, ibiltariak edo beste profil batekin jardutenak**: dauden ikastetxean jarraituko dute, martxoaren 3a baino lehen ez badute jakinarazten.
- **Antolakuntzarako zerbitzu-eginkizunak**: martxoaren 15a baino lehen bidali.

- Zerbitzu-eginkizunak, toki-korporazio bateko kide izateagatik (2023ko ekainaren 5a baino lehen) eta 6 urtetik beherako alaba edo semea zaintzeagatik (bizilekua eta behinbetiko destinoa 50 kilometroetara edo gehiagora egonez gero).
- Betetzeko zailak diren lanpostuak: gehienak desagertuko dira, Mendialdekoak eta eskola txikietakoak izan ezik. Hiru urteak bukatu ez dituenak jarraituko du hiruak bete arte, gainerakoak zerrendetako haien tokira itzuliko dira. Berriz ere, ez da batere negoziatu sindikatuekin.

### 3. Aldaketa, lanpostuen hornidurari buruzko 37/2014 Foru Dekretuan:

- Egonkortzeko PAI oposizio-lehiaketatik eratorritako zerrendek lehentasuna izango dute indarrean dauden zerrenda arrunten gainetik, atzerriko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetarako. Horrela antolatuko dira:
  1. PAI LEParen funtzionario lanposturik gabe gainditutakoen zerrenda.
  2. PAI LEParen zerrenda orokorra.
  3. Espezialitate eta hizkuntza bera, zerrenda arruntean C1 batekin.
  4. Espezialitate bera, hizkuntza desberdina, zerrenda arruntean C1 batekin.
  5. Espezialitate eta hizkuntza bera, zerrenda arruntean B2 batekin.
  6. Espezialitate bera, hizkuntza desberdina, zerrenda arruntean B2 batekin.
  7. Beste espezialitate bat, titulazioaren beheranzko hurrenkeran (C1-B2).

\* Hizkuntza desberdineko zerrenda arrunteko langileek ez dute zertan LETan parte hartu.

Kontratazio berriak zerrenda orokor arruntean sartuko dira. **Kontratazio zerrenden araudi toxikoa are gehiago okertu da.**